

# C. 1853

## Pedro Perez Castro

### Lekeition



**P**edro Perez Castro (1823-1902) pintore, akuarelista eta litografoa izan zen, diplomatikoa eta palazio-gizona ogibidez. Paisaia ez zen gehiegi lantzen zen gaia Espainian baina Pedro Perezek gustoko zuen akaso gaztetan Ingalaterran bizi izan zelako. Hantxe ezagutu zituen paisaia-pintore ingeles erromantikoak eta estilo erromantiko hartan murgildu zen hasierako etapan. Gerago Haesen antzeko estilo errealista jarraitu zuen.

Gure litografiak lehen etapa horretakoak dira baina ze-

lan heldu zen Perez Lekeitiora? Bere emaztea, Paz Salazar Ezpeleta, Uriarte jauregikoen senidea zelako. Kontuan izanda 1850ean ezkondu zirela hurrengo urteetan ibiliko zen hemen -1852koa da Isuntza zubiko akuarela-.

Euskal Herriko hainbat txoko pintatu zituen, Lekeitio eta inguruak euren artean eta seguru gaude makina bat lan eta zirriborro ibiliko direla hortik zehar "galduta", besteak beste Beatriz Barbeito-Manovelek aipatzen dituen "Ferreria en Izurza" eta "La Casa de Zubieta en Lequeitio".





Lekeitio Isuntza hondartzatik



Hemen agertzen diren grabatuak jatorri ezberdinak dituzte: batzuk A Coruñaako Arte Ederretako Museoan daude, beste bat Espainiako Liburutegi Nazionalean, beste batzuk nireak dira, baten bat Sarean eskegita dago...



Lekeitioko San Juan Talako





Vizcaya / Puente de Yzurga en Lekeitio. Litografía. c. 1853 ([bne.es](http://bne.es))



Puente de Izurza en Lekeitio. 1852  
Museo Bellas Artes, A Coruña. Akwarela eta luma paperaren gainean



Río de Lekeitio y Palacio de Zubieta. 1832 (erratuta)  
Museo Bellas Artes, A Coruña. Akwarela paperaren gainean



Vizcaya / El Monte Utoyo y el cabo  
Machichaco (Costa de Lequeitio)  
Litografía. c. 1853



Gruta en Lequeitio  
(Vizcaya)  
Litografía. 1862



Unos molinos en (cerca de)  
Lequeitio. Bilduma pribatua.  
Akuarela paperaren gainean